BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5486

EBAZPENA, 2011ko urriaren 28koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, 2011rako Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako diru-laguntzak ematen dituena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiak 2011ko ekainaren 15eko Ebazpenaren bidez (EHAA, 120. zenbakia, 2011-06-24koa), 2011rako Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako diru-laguntzak iragarri zituen.

GLSFren konturako programetarako laguntzak emateko modua arautzen duen apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 80. artikuluan (EHAA, 89. zenbakia, 2007-05-10ekoa), eta, alde batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan (EHAA, 131. zenbakia, 2008-07-10ekoa), eta bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluan (EHAA, 65. zenbakia, 2010-04-09koa) ezarritakoarekin bat etorriz, eta proposamenak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso ondoren, hala jasota baitago 2011ko urriaren 7ko bilkuraren aktan, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2011ko ekainaren 15eko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ebazpenaren I. eranskinean agertzen diren entitateei esleitzea (laguntzen zenbatekoa eta ezaugarriak eranskinean jasota daude).

Bigarrena.– II. eranskinean jasotzen diren laguntza-eskariak ukatzea, aurrekontu kreditua agortu izanagatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Laugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geldituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 28a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

I. ERANSKINA

GLSFren KARGURAKO PROGRAMETARAKO 2011N - DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKARIAK

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Proposamen titulua	Herrialdea	Dirulaguntza
PGM-2011BA/0009	Fundación Mundubat	Fortalecimiento de la participación socio-política de la población palestina en Jerusalén Este.	Palestina	1.084.673,05
PGM-2011BA/0008	Asociación Mugarik Gabe	Fortalecimiento de la autonomía de los pueblos indígenas de Antioquía (Colombia).	Colombia	906.727,21
PGM-2011BA/0001	Asociación Zabalketa	Desarrollo equitativo y sostenible en comunidades andinas.	Perú	1.079.552,31
PGM-2011BA/0003	Fundación Intermon Oxfam	Mujeres guatemaltecas defendiendo su derecho a vivir libres de violencia.	Guatemala	1.063.969,72
PGM-2011BA/0002	Asociación Mugarik Gabe	Construcción de poder popular para defensa del territorio en el Nor-Oriente de Guatemala.	Guatemala	978.078,26
PGM-2011BA/0005	Asociación Medicus Mundi Bizkaia	Fortalecimiento del sistema sanitario público con calidad y equidad para el ejercicio de los Derechos Sexuales y Derechos Reproductivos y la reducción de la violencia de género en Centroamérica.	Centroamérica (Guatemala y Honduras)	941.819,09
PGM-2011BA/0010	Asociación Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional	Modelo municipal de desarrollo integral sustentado en Derechos Humanos.	Guatemala	1.060.312,20
PGM-2011BA/0006	Fundación Alboan	Programa gobernabilidad: de la propuesta a la implementación.	Perú	1.084.868,16

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2011ko azaroaren 11, ostirala
214. zk.

II. ERANSKINA

GLSFren KARGURAKO PROGRAMETARAKO 2011N - EZEZKOA EMAN ZAIEN ESKARIAK

Espediente zk.	Erakunde eskatzailea	Proposamen titulua	Herrialdea	Ukapenerako zioa
PGM-2011BA/0007	Fundación Alboan	Participación juvenil: hacia una nueva ciudadanía desde la participación organizada.	Colombia	Aurrekontu agortua
PGM-2011BA/0004	Fundación Mundubat	Acceso y legalización de tierra a familias campesinas de Centroamérica.	Centroamérica (Guatemala, El Salvador, Honduras y Nicaragua)	Aurrekontu agortua
PGM-2011BA/0011	Asociación Medicus Mundi Álava-Araba	Yacullay: Reducción de la pobreza con inclusión social en Vinchos, Chiara y Los Morochucos.	Perú	Aurrekontu agortua